




zenbat bizi!

OIHANA ARANA

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

OIHANA ARANA

zenbat bizi!

“barren

Eguerdi on, guztioi. Banator. Hemen hau egiten egoteko aurretik zer, norekin, nola eta zenbat bizi behar izan dudan esatera. Berandu konturatu nintzen izenburu laburregia egin genuela. Gaurkoak ikusita hobeto zen, akaso: "Zenbat bizi. Euskal literaturak sortu dizkidan traumak, minak, zauriak, erronkak, itzulipurdiak" izendatzea amaiera testu hau. Bere izenburu, azpi-izenburu eta abar. Baina tira. Ez naiz iraganeko O. Aranak hartutako erabaki guztien erantzule bakarra. Banator. Eta ez da gutxi.

Beste ezeren aurretik esango dut, badaezpada. Bai. 2001ean jaio nintzen. Bai. Ze gaztea. Baina beno, onar dezagun denboraren joana. 2001ean jaio ginenok badauzkagu honezkero 22 urte. Berriz esango dut. Bai. 2001ean jaio nintzen eta XXI. mendean jaiotako lehen euskal idazle gisa saldu ninduten. Zuek ez zarete akordatuko, baina ni bai. Ohean, burua mantapean ezkutatuta pasa nituen bi egun, eta esango duzue: "jo ze dramatika". Eta esango dizuet bai. Banaiz. Eta harro. Beno harro... edo pozik. Ze hala ez banintz ez nuke idatziko. Edo bai, baina beste zerbait. Azken aldiz esango dut. Bai. 2001ean jaio nintzen. Gero nahi baduzue etorri eta esan ze freskoa izan den nire hitzartzea, eta ze jatorra, eta ze potxola eta ze naif. Edo ez etorri. Eta pentsatu ea hori egingo ote zenuketen ez banintz 2001ean jaio izan. Egingo bazenute etorri. Jatorra izango naiz. Adeitsua izan ohi naiz. Emakume egin ninduten.

Eguerdi on, guztioi. Banator. Bakarrik nator. Eta singularrean nator. Ez da indibidualismoa. Edo ez hori bakarrik. Bakarrik nator gehiegi hitz egiten dugulako gutaz, oraindik gurik ba ote den erabaki ez dugun arren. Balizko gu horretan kabituko ote ginatekeen ez dakigun arren. Banator asko hitz egiten dugulako sorkuntza kolektiboaz, baina inork ez duelako aipatzen taldean sortzea batzuetan berriz DBH3n egotea bezalakoa dela. Eta jokoan sartzen direlako autoestimua, pazientzia eta osasuna. Hain garelako perfekzionistak, hain garelako lehiakorak, hain garelako zaugarriak... ezen ezin baitugu geure egoa horren ataka estuan ipini. Banator itxiera testu bat behar zuelako honek, eta udazkenaren hasierak hori egiteko indarra ematen digulako udazken jendeari. Banator hau egiteko esan zidatelako eta ez dakidalako ezetz esaten. Banator entzun nazazuen. Zuek. Nik. Zuek ni. Nik ni. Ni bakarrik.

Hogei aldiz irakurri dut testua ispiluaren aurrean. Baliteke ahotsak dar-dar egitea, baina ez da ez zaidalako emaitza gustatu. Hamaika lagunek irakurri dute zuek entzun aurretik. Plazandrea naizela esaten didate, baina inork ez zigun abisatu plazandre izateak insomnia sortzen duela eta amesgaiztoei aurre egiteko modu on bat dela gauzak bakar-bakarrik ez egitea. Oholtzan bakarrik, bale. Baina begirada konplizeak egon daitezela aurretik eta ondoren. Ez nago ohituta altuan irakurtzera, baina tira. Egingo dut. Honezkero, harrapatuko zenuten nire trikimailua: tranpetan harrapatu aurretik aitortuko dizuet tranpa egiten ari naizela. Inpostorearen sindromea isiltzeko modu ona da, hartu zuentzat beharko bazenute.

Gaurko hitzaldiak entzun aurretik idatzi nuen testua. Posible da, beraz, aipatuko ditudan hainbat kontu inork lehenago aipatu izana, edo are, baliteke ni beste zerbaitetaz aritzea eta kito. Hau da, izenburuak bakarrik irakurri nituen, berriak ere hala irakurtzen ditut normalean. Izenburua eta listo. Belaunaldi kontua izango da, ez dakit. GenZ. Badakizue. Hortaz, izenburuez mintzatuko naiz. Azalaz. Koadernoetan aski mami pilatu duzue gero. Badakit ez duela gehiegi pegatzen, espero zenutela akaso zerbait sakonagoa... baina ez dakit. Gustatzen ez bazaizue esan U. Alberdiri hurrengo baten besteren bati deitzeko. Ardurak banatzearen diot. Ni hemen bakarrik egotearen ardura ez baita soilik nirea. Edo bai, ez dakit. Ez, baina benetan: guztiz bestelako kontuez ari naizela iruditzen bazaizue, hurrengo baterako izenburu ez hain iradokitzaileak egiteko posibilitatea ere planteatu dezakegu kolektiboki.

Beno. Noan harira. Honakoak izan dira gaurko hitzaldien izenburuak: “Kulturak guztia alda dezake. Euskal irakurlea: zelakoak gara? zein gara? zenbat gara?” “Hitz egokiaren bila: nolakoa da gure lengoaia literarioa? nondik edaten dugu? zer falta zaio?” “Itzulbideak, itzulinguruak eta itzulipurdiak: ekimenak, esperientziak, erronkak...” eta azkena “Nola sortzen da irakurlea? Irakurzaletasunaren etapak. Literaturzaletasunaren transmisioa nork nori nor”.

Bukaeratik hasiko naiz. Eta horretarako baimena eskatzearen arren, ez dut eskatuko. Badakit ohitura txarra dela, baina zer nahi duzue nik esatea. Bertsolaria nintzen idazlea izan aurretik. Musu bat portzierto euskal idazlea izateko emakumea, gaztea eta bertsolaria izan behar dela esaten duzuen guztioi. Ez da gure kulpak. Eta gainera, ez da egia. Kontatu lehendabizi zenbat gizon heldu dauden eta egingo dugu berba gero.

Haria galdu dut berriz. Ea. Nola sortzen da irakurlea? Nire esperientzia kontatuko dizuet. Neure buruari buruz baino gehiago ez dakit eta ezertaz. Eta lotsa ematen dit horrela biluzteak. Ez daukadalako literaturarekin halako istorio erromantikorik. Ez nintzen irakurzaletu amak ohean ipuinak irakurtzen zizkidalako, gure amak gauz egiten zuen lan. Ez nintzen irakurzaletu Harry Potterekin batera hazi nintzelako. Ez nintzen Lorcaren fana izan nerabetan. Ez nintzen obsesionatu Cortazarrekin. Ez ditut irakurri Carverren liburu guztiak. Ikastolako umea izan nintzen ni. Ordenagailua izan dut begien parean DBH1eko lehenengo egunaz geroztik egunero. Grabea iruditzen zait, baina hala irakurzaletu nintzen. Egunero irakurtzen nituen A. Lertxundik eta M. Amurizak Berrian idazten zituztenak. Lotsa ematen dit zuen aurrean hori aitortzeak, baina hala da. Matematikako orduetan zuen artikulak irakurtzen nituen. Eta listo. Hori da nire istorio erromantikoa. Ikastolak irakuleak sortzen dituela esan daiteke orduan? Edo bat sortu zuela, behintzat? Barkatu, ez da klasismoa, e? Edo ez dakit, agian bada klasismoa. Eta klasismoak irakurleak sortzen ditu? Beno ez dakit, nolana ere ni Euskal Eskola Publikoaren alde nago.

Zaletu nintzen D. Sarriugarte irakurtzen, U. Apaolazarekin. M. A. Meaberekin. L. Bilbaorekin. Ez dakit. Nik uste dut bakardadeak eta asperdurak zaletu nindutela. Bakardadea edo asperdura, egun ere bietako bat izaten da sarri sudurra hizkien aurrean paratzera naramana. Itzulbideak, itzulginguruak eta itzulipurdiak. Ados. Itzulpengintzari buruzko mahaia.

Ez naiz ni aproposena honi buruz berba egiteko, izan ere, normalean lagunek ez dizkirate utzitako liburuak itzultzen, eta nik ere badauzkat itzuli gabeko hainbat nire apalategikotzat hartuta. Barkatu... itzuliko dizkizuet... noizbait. Halere, egia esango dut. Ez zait norbaiten etxera norbere liburuak hartzea joatea baino ekintza antipoetikoagorik okurritzen, baina tira... Amaierak amaierak dira.

Benetan uste dut itzulpengintza fizkioa dela. Hau da, seriooki diot euskal literatur sistema ezin dela itzuli. Ez dela modurik existitzen. Ezin dela egin. Eta listo. Ez dut argumentatuko, ez ditut falaziak argumentuz mozorrotuko. Ez dut ezer gehiago esango. Esaidazue bestela, nola itzuliko zenuketen nahi duzuen hizkuntzara Durangoko Azokan liburuak erosten dituen jende multzo horren zati txiki bat baino ez dela irakurlea. Nola itzuliko zenuketen argazkilariek zuhaitz baten atzean ezkutatzeko eskatzen digutela liburuen aurkezpen prentsaurrekoak baino lehen

ateratzen dizkiguten argazkietan. Nola itzuliko zenuketan Euskal Herrian gehien saldu den liburua Aita Santuak aipatu zuelako ezagutzen duela jendeak. Nola itzuliko zenituzketan A. Iturberen elkarrizketak, eta irratitik etxera bueltan autoan isuritako malkoak. Ez dakit, niri ez zait bereziki ariketa egingarria iruditzen.

Lengoaia literarioa. Bale. Honi buruz ez dut gehiegi hausnartu. Baina nik ere pasatu ditut orduak hitz egokienaren bila. Hiztegieta, corpuseta... Esan izan didate hitz bat euskaraz nola esan ez badakit pentsatzeko nire amamak nola esango lukeen. Bai, noski. Euskaldun guztion amamak euskaldunak izango balira bezala. Denok ez gara belarri milenariodunak, eta behar ditudan berba asko nire amamak ez ditu inoiz erabili. Nik behar dut esan akkuratua, behar dut esan mood. Eta zehatza eta gorputzaldia ez dira hitz egokiak. Ez dakit. Lar genZ izango naiz, akaso e. Baina lasai, ni ere egon naiz erdarakadak ez idazteko sabinismoak erabiltzeko puntuan. Ez dut, halere, euskararen taliban marmartiak izan gaitezen nahi. Ez dut pentsatu nahi nola esango dudan bollera euskaraz, batzuetan gehiegi pentsatu gabe idatzi behar da eta kito. Badakit dena ez dela zuzentasuna, e? Egokitasuna ere badagoela. Eta norbere fetitxeak eta maniak ... Batzuetan behar dira hiru egun berba bat idazteko. Eta askotan behar ditugun berbak ez dira existitzen. Edo baten batek asmatu ditu eta erabilera okerra ematen die.

Hau guztia esanda. Nolakoa da euskal irakurlea? Nor da? Euskal irakurlea emakumea da. 1.60 baino gutxiago neurtzen du. Ez da heterosexuala. Bere amonaren alkondarak janzen ditu jendaurrean agertu behar den aldiro; eta bestela ere bai. Euskalkiduna da, baina euskara batua baliatzen du jendaurreko mozorro gisa, bestela biluzik sentitzen delako. Haserretu egiten da bigarren eskuko liburu dendetan apenas dagoelako euskarazko libururik. Euskal irakurlea prekarioa da. Ohean irakurtzen du, kotxeko karneta atera zuenetik oso gutxi ibiltzen delako autobusean eta bakarrik egiten duelako lo. Euskal irakurleak loezina izaten du sarri. Argitaratu ahala irakurri zituen M. A. Txoperenaren, O. Mitxelenaren, E. Olaveren, N. Ibartzabalen, L. Goitiaren, L. Begoñaren, A. Usandizagaren, G. Arrularen, O. Amantegiren... liburuak. Eta baita beste lagun irakurle batekin den-denak aletu ere. Supermerkatuko orgatxoari bultzaka grabatutako audio mezu luzeetan komentatu du liburu bat eta bakoitza. Izan ere, euskal irakurleak jan egin behar du, eta janaria erosi behar izaten du horretarako.

Euskal irakurleak ez dauka dena irakurtzeko denborarik, horregatik ez du gizonen idatzitako libururik erosten. Are, euskal irakurleak antsietatea dauka bere lagunek asko idazten dutelako eta ez daukalako dena ganoraz irakurtzeko denborarik. Euskal irakurleak irakurri nahi du beste hizkuntza batzuetan ere, baina erritmoak ez dio uzten. Euskal irakurleak lanetik etxera iristean ez du irakurri nahi. Piztu nahi du telebista eta ikusi nahi du First Dates. Horrelako zita bat euskaraz nolakoa litzatekeen pentsatzeko astirik hartu gabe, baina horren orde euskal irakurleak A. Malagonen ipuinak irakurtzen dizkie pisukideei gauez, euskal irakurlearen etxean ez dagoelako telebistarik.

Ez ditut, akaso, zuen zalantza guztiak argitu. Ez ditut izenburuetako galdera guztiak erantzun. Ez dut barkamenik eskatuko, ordea. Abisatu dizuet. Hasieratik esan dizuet banentorrela, eta neure buruari buruz berba egitera nentorrela. Ez dut “euskal irakurlea ni naiz” bezalako esaldi arranditsu batekin amaituko hitzartzea. Gutaz berba egiteko neure buruari buruz idatzi nahi nuen, hori izan da dena. Pentsatu egolatra naizela nahi baldin baduzue. Baina izan gaitezen dotoreagoak eta dei diezaiogun autofikzio. Edo autopertzepzio faltsu. Ez dakit ze kontzeptu den egokiagoa behin puntu honetara iritsita.

Eguerdi on, guztioi. Banoa. 2001ean jaio nintzen eta ez dut ni jaio orduko zuek zenbat bizi izan zenuten entzun gura. Neure buruari buruz berba egitera etorri naiz hona. Eta osorik entzun duzue hitzartzea. Antza denez, denbora tarte laburretan ere gerta daiteke bizi. Eta gertatuko da, oraindik. Geure esku gelditzen da, beraz, zenbat bizi, zenbat idatzi eta zenbat kontatu. Zuen esku zenbat sinistu, zenbat entzun eta zenbat ahaztu. Eguerdi on, guztioi. Orain, bai, banoa.